

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

3

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

14/2014 FORU ARAUA, abenduaren 10ekoa, lanari utzi ondorengo egoera jakin batzuetarako zerga-tratamendu berezia ezartzen duena.

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAK

Jakinarazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu dutela «14/2014 Foru Araua, abenduaren 10ekoa, lanari utzi ondorengo egoera jakin batzuetarako zerga-tratamendu berezia ezartzen duena»; eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut, aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek nahiz agintariek, bete eta betearazi dezaten.

Donostia, 2014ko abenduaren 10a.—Martin Garitano Larrañaga, diputatu nagusia. (11162)

HITZAURREA

Krisi ekonomikoaren intentsitatearen ondorioz, azken urteetan garatu den politika fiskalak lehentasuna eman die, batetik, kontu publikoak berriro orekatzeari eta, bestetik, baliabide nahikoak biltzeari egoera ekonomiko latzak gastu publikoan eragin duen gehikuntzari behar beste bermerekin aurre egiteko. Horren erakusgarri dira, besteak beste, 2013ko abenduaren 27ko 13/2013 Foru Araua, zerga alorreko zenbait aldaketa onartu zituen, eta berriki onetsi diren zerga batzuen erreforma integralak, hain zuzen, Sozietateen gaineko Zergarena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena.

Gainera, Gipuzkoako Batzar Nagusiek jokabide berezia izan dute krisi ekonomiko eta finantzarioaren ondorioek gehien kalteu dituzten zergapekoen kasuetan, hala nola finantza entitateekin hartutako hipoteka konpromisoei erantzun ezin izateagatik beren etxebizitza galdu duten pertsonen kasuan. Izan ere, hala-koetan, Batzar Nagusiek salbuespenak eta aldaketak ezarri dituzte pertsona horiek etxetik botatzeko aginduz judizialen ondorioz hipoteka exekutatzeko egiten diren eragiketen gaineko kargei lotutako tributazio arauetan.

Bestalde, ekonomia soziala deritzonak garrantzi handia du Gipuzkoako Lurralde Historikoan, zeinaren ezaugarri nagusietako bat den langileek beren enpresetan parte hartzea, bai auto-kudeaketa formularen bidez (sozietate kooperatibo edo lan sozietateetako kapitaleko partaidetzaren bitartez), bai langileek zerbitzuak ematen dituzten entitateari baliabide ekonomikoak emanez (kapitaleko partaidetza edo mailaguen bidez).

Azkenaldian, ekonomia sozialaren eremuan nabaritu da, bereziki, krisi ekonomikoaren gogortasuna. Izan ere, sektore horretako langileek inplikazio handia dute enpresaren kapitalean zein kudeaketan; horren ondorioz, enpresok oso egoera ahulean geratu dira ziklo ekonomikoaren une latzenetan, eta, kasu batzuetan, hartzekodunen konkurtsora jo behar izan dute,

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

NORMA FORAL 14/2014, de 10 de diciembre, por la que se establece un tratamiento tributario alternativo para determinadas situaciones postlaborales.

EL DIPUTADO GENERAL DE GIPUZKOA

Hago saber que las Juntas Generales de Gipuzkoa han aprobado y yo promulgo y ordeno la publicación de la siguiente «Norma Foral 14/2014, de 10 de diciembre, por la que se establece un tratamiento tributario alternativo para determinadas situaciones postlaborales», a los efectos de que todos los ciudadanos y ciudadanas, particulares y autoridades a quienes sea de aplicación, la guarden y hagan guardarla.

San Sebastián, a 10 de diciembre de 2014.—El diputado general, Martin Garitano Larrañaga. (11162)

PRÉAMBULO

La intensidad de la crisis económica ha motivado el desenvolvimiento de una política fiscal en los últimos años que ha dado una preponderancia especial al reequilibrio de las cuentas públicas y a poder allegar los recursos precisos para estar en condiciones de afrontar con las suficientes garantías el incremento del gasto público generado por la coyuntura económica adversa, tal y como se ha podido constatar, por ejemplo, con la aprobación de la Norma Foral 13/2012, de 27 diciembre, por la que se aprueban determinadas modificaciones tributarias, o las recientemente aprobadas reformas integrales del Impuesto sobre Sociedades o del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Además, las Juntas Generales de Gipuzkoa también han sido sensibles a los supuestos que afectan a los contribuyentes más perjudicados por las consecuencias de la crisis económica y financiera, como los que han perdido sus viviendas por no poder hacer frente a los compromisos hipotecarios adquiridos con entidades financieras, estableciendo exenciones o modificaciones en las reglas de tributación de los gravámenes que recaen sobre las operaciones de lanzamiento y ejecución hipotecarias.

En el Territorio Histórico de Gipuzkoa tiene una importancia destacada la denominada economía social, de la que es un exponente muy destacado la participación de las personas empleadas en las empresas para las que prestan sus servicios, bien sea mediante la fórmula de autogestión instrumentada a través de la participación en el capital de sociedades cooperativas o laborales, bien a través de la aportación de recursos económicos en forma de participaciones en el capital o de préstamos a las entidades en las que se prestan los servicios, situaciones todas ellas que han sido intensamente fomentadas desde el ámbito público.

La virulencia de la crisis económica se ha dejado notar especialmente en los últimos tiempos en el ámbito de la economía social, en la que la implicación específica de las personas empleadas en el capital y la gestión de las empresas, hace que queden en una situación especialmente vulnerable en relación con los momentos más adversos del ciclo económico, llegando

finantzaketa egoerak beste aukerarik eman ez dienean aurreko garai batean beren sektorean trakzio enpresa bihurtutako sozietateei.

Are gehiago, halako enpresetako langileek aldi baterako utzi zizkieten beren enpresei lan bizitza amaitu ondoren jaso behar zituzten baliabideak –eskubidez zegozkienak–, gainerako lankideei laguntzeko eta elkartasuna adierazteko neurri gisa, enpresaren jardunari eusteko eta palanka efektu finantzarioak ekar ditzakeen arriskuak murrizteko. Hori dela eta, langileok bereziki kaltetuta geratu dira entitateek azkenean konkurtso-prozedura eskatu dutenean.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko arauze arrunta, errenta iturri guztiei aplikatzen zaiena, ez dago egituratuta egoera ekonomiko patologikoak aintzat hartzeko. Aitzitik, inguruabar ekonomiko arruntan gainean eraiki zen, eta, horregatik, arau espezifiko bat behar da aparteko egoerei erantzuteko nahiz ahalmen ekonomiko txikiena duten zergadunak izan litezkeen neurritz kanpoko ondorioetatik babesteko.

1. artikulua. Aplikazio eremua.

Foru arau honetan xedatutako zerga tratamendua honako baldintza hauek betetzen dituzten Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergapekoei aplikatuko zaie:

a) Entitate batean bazkide gisa zerbitzua eman izana bost urtez, gutxienez, lanari utzi aurretik.

b) Jaso ez izana lanari utzi ziotenean bazkidea izateagatik eskubidez zegozkien zenbateko guztiak edo batzuk, arrazoi hauetako bat dela eta:

i. Zegozkien kopuruak ordaintzeko luzapena ezarri edo adostu izana.

ii. Langile horiek zerbitzuak ematen zituzten entitateari mailegu bat eman izana.

iii. Kopuru horiek bazkide ez-aktibo izanda kapitalari eman izana aldi baterako.

c) Zuzendaritza edo administrazio eginkizunetan jardun ez izana lanari utzi aurreko bost urteetan.

d) Entitateko kapitalaren zuzeneko edo zeharkako partaidetza portzentajea inoiz ere ez izatea 100eko 20tik gorakoa, lanari utzi aurreko bost urteetan. Portzentaje horretan orobat sartzen dira zergadunarekin harremana duten pertsonen partaidetzak; Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 18ko 10/2012 Foru Arauko 27.3.b) artikuluko zehazten du zein motatakoa izan daitekeen harreman hori.

e) Entitatea hartzekodunen konkurtsoan dagoela adierazteko autoa lanari utzi ondorengo bost urteetan eman izana.

f) Aurrekoaren ondorioz, aurrez ikustea zergadunak ezin izango dituela berreskuratu artikuluko b) letran aipatzen diren zenbateko guztiak.

2. artikulua. Langileek lanari utzi ziotenean eskubidez zegozkien zenbatekoen ondoriozko ondare irabazien zerga tratamendua.

Bat. Foru arau honetako 1. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten zergadunek aukera izango dute lanari utzi ziotenean bazkidea izateagatik eskubidez zegozkien zenbatekoen ondoriozko ondare irabaziaz egotzeko; baina irabazien horietatik bakarrik egotzi ahal izango dute foru arau honetako 1. artikuluko b) letrako zenbatekoei dagokien zatia, eta foru arau

incluso a verse obligados a acudir a la vía del concurso de acreedores cuando la situación financiera no ha permitido otra salida a empresas que otrora se habían convertido en tractoras de sus respectivos sectores.

Es más, esas situaciones han provocado que las personas empleadas de esas empresas, que habían dejado de forma temporal en las mismas los recursos a que tenían derecho al concluir su vida laboral, como una medida de apoyo y solidaridad hacia el resto de sus compañeros, con el objetivo claro de posibilitar el mantenimiento de su actividad y reducir la exposición al apalancamiento, con los peligros que de la misma se derivan, se vean especialmente afectados en las situaciones en las que la entidad ha acabado solicitando el correspondiente procedimiento concursal.

La regulación ordinaria del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas aplicable a las distintas fuentes de renta no está estructura atendiendo a situaciones económicas patológicas, sino todo lo contrario, se construye en base a circunstancias económicas ordinarias, por lo que se hace precisa una respuesta normativa específica para atender situaciones extraordinarias y amparar a los contribuyentes de menor capacidad económica de las consecuencias desproporcionadas que pueden derivarse para los mismos.

Artículo 1. Ámbito de aplicación.

El tratamiento tributario previsto en esta Norma Foral será de aplicación a los contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas que cumplan los siguientes requisitos:

a) Que hayan prestado sus servicios en una entidad de la que tengan la condición de socio durante, al menos, cinco años con antelación al cese de su actividad laboral.

b) Que no hayan percibido la totalidad o parte de las cantidades a que tuvieran derecho como consecuencia de su condición de socio en el momento del cese de su actividad laboral por alguna de las circunstancias siguientes:

i. Por haberse establecido o acordado un aplazamiento en el pago de las cantidades correspondientes.

ii. Por haber concedido un préstamo a la entidad para la que prestaba sus servicios.

iii. Por haberse aportado temporalmente al capital en la condición de socio inactivo.

c) Que no hayan ejercido funciones de dirección o administración de la entidad en los últimos cinco años anteriores al cese de su actividad laboral.

d) Que el porcentaje de participación, directo o indirecto, en el capital de la entidad no haya sido superior al 20 por 100 en ningún momento de los cinco años anteriores al cese de la actividad laboral, incluyendo las participaciones que detenten las personas que tengan con el contribuyente alguna de las relaciones a que hace referencia la letra b) del apartado 3 del artículo 27 de la Norma Foral 10/2012, de 18 de diciembre, del Impuesto sobre la riqueza y las grandes fortunas.

e) Que la entidad haya sido declarada en concurso de acreedores en el plazo de los cinco años siguientes al cese de la actividad laboral.

f) Que, como consecuencia de lo anterior, el contribuyente no pueda recuperar la totalidad de las cantidades a que hace referencia la letra b) anterior.

Artículo 2. Tratamiento tributario de las ganancias patrimoniales derivadas de las cantidades a que tuvieran derecho en el momento del cese de su actividad laboral.

Uno. Los contribuyentes que cumplan los requisitos establecidos en el artículo 1 de esta Norma Foral podrán optar por imputar las ganancias patrimoniales derivadas de las cantidades a que tuvieran derecho como consecuencia de su condición de socio en el momento del cese de su actividad laboral, en la parte de las mismas que se corresponda con los importes a que

honetako 1. artikuluko f) letran adierazitako ondare galera ego-tzi behar den uanean.

Bi. Aukera hori baliatzeko epea beste epe hau amaitze-arekin batera bukatuko da: entitatea hartzekodunen konkur-tsoan dagoela adierazteko autoa eman den zergaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioa egiteko borondatezko epea.

Hiru. Artikulu honetan xedatutakoari heldu dioten zergadu-nek eskubidea izango dute foru arau honetako 2.Bat artikuluko ondare irabaziak direla eta Pertsona Fisikoen Errentaren gai-neko Zergan ordaindutako zati proportzionala itzul dakien. Kasu horretan, foru arau honetako 2.Bi artikuluko aukera baliatu ondorengo sei hilabeteen barruan itzuliko die zati hori Zerga Administrazioak, baina berandutze interesik gabe.

3. artikulua. Zergadunek jaso ez dituzten zenbatekoen ondoriozko galerak konpentsatzea.

Bat. Foru arau honetako 2. artikuluan ezarritako araubide-ari heldu dioten zergadunek kasuan kasuko ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarrian sartu gabeko ondare irabazien (foru arau honetako 2. artikuluan aipa-tuak) zatia erabiliko dute foru arau honetako 1. artikuluko f) letran adierazitako ondare galerak konpentsatzeko. Baina kon-pentsatu gabeko gainerako zenbatekoari ezin izango diote apli-katu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2014ko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauko 65. artikuluan xedatutakoa.

Bi. Artikulu honetan xedatutakoa gorabehera, zergadunek, artikulu honetan ezarritako tratamendu bereziaren orde-z, ondare galerak integratu eta konpentsatzeko araubide orokorra aplikatu ahal izango dute, hau da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2014ko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauko 65. artikuluan ezarritakoa.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bakarra. Foru arau hau indarrean jarri aurreko egoerak.

Foru arau honetako 1. artikuluko baldintzak betetzen dituz-ten zergadunek zerga tratamendu berezi honi heltzea erabaki ahal izango dute; horretarako, sei hilabete izango dituzte, trata-mendu hori indarrean jartzen denetik aurrera, betiere lanari utzi badiote 2009ko urtarrilaren 1aren ondoren eta zerbitzuak ema-ten zituzten entitatearen hartzekodunen konkurtoa 2013ko urtarrilaren 1aren ostean adierazi bada.

Zerga Administrazioak erregularizatu egingo du, ofizioz, preskribatuta ez dauden aurreko zergaldietako zerga egoera, xedapen honetan aipatzen diren zergapekoei dagokienez.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Indarrean sartzea.

Foru arau hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean sartuko da indarrean, eta 2014ko urtarrilaren bataren geroztiko eraginak izango ditu.

Bigarrena. Gaikuntza.

Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari baimena ematen zaie foru arau hau garatu eta gauzatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzaten.

se refiere la letra b) del artículo 1 de esta Norma Foral, al mismo momento temporal en que se deba imputar la pérdida patrimo-nial a que hace referencia la letra f) del artículo 1 de esta Norma Foral.

Dos. La opción podrá ejercitarse hasta el momento en que finalice el plazo voluntario de autoliquidación del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del período impositivo en que se haya dictado el auto de declaración del concurso de acreedores de la entidad.

Tres. El contribuyente que se haya acogido a lo dispuesto en este artículo tendrá derecho a la devolución de la parte proporcional del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas que hubiera satisfecho en relación con las ganancias patrimo-niales a que hace referencia el apartado Uno, que serán devuel-tas por la Administración tributaria en el plazo de los seis meses siguientes al ejercicio de la opción a que se refiere el apartado Dos, sin incluir intereses de demora.

Artículo 3. Compensación de las pérdidas derivadas de las cantidades no percibidas por el contribuyente.

Uno. Los contribuyentes que se hayan acogido a la opción establecida en el artículo 2 de esta Norma Foral compensarán las pérdidas patrimoniales a que hace referencia la letra f) del artículo 1 de esta Norma Foral con la parte de las ganancias patrimoniales a que se refiere el artículo 2 de esta Norma Foral pendientes de integrar en la base imponible del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas en el ejercicio de que se trate, sin que puedan aplicar lo dispuesto en el artículo 65 de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, al importe restante que no haya podido ser objeto de compensación.

Dos. No obstante lo dispuesto en este artículo, los contri-buyentes podrán optar por aplicar el régimen general de inte-gración y compensación de pérdidas patrimoniales previsto en el artículo 65 de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, en sustitución del tratamiento alternativo previsto en este artículo.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Única. Situaciones producidas antes de la entrada en vigor de esta Norma Foral.

Los contribuyentes que cumplan los requisitos establecidos en el artículo 1 de esta Norma Foral podrán optar por acogerse al tratamiento tributario alternativo previsto en la misma en el plazo de 6 meses desde su entrada en vigor, siempre que el cese en la actividad laboral se haya producido con posterioridad al 1 de enero de 2009 y el concurso de acreedores de la enti-dad en la que prestaban sus servicios se haya declarado con posterioridad al 1 de enero de 2013.

La Administración tributaria procederá, de oficio, a regulari-zar la situación tributaria de los períodos impositivos preceden-tes que no se encontraran prescritos respecto de los contribu-yentes a que se refiere esta disposición.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. Entrada en vigor.

La presente Norma Foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el «BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa», con efectos desde el día 1 de enero de 2014.

Segunda. Habilitación.

Se autoriza a la Diputación Foral y a la diputada o diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y apli-cación de esta Norma Foral.